

Euskal AEko eraikuntza sektorearen negozio-zifra %13 jaitsi zen 2011n

Langile okupatuak %9,9 murriztu ziren

2009an beheraka hasi eta 2011n zehar eraikuntza sektorearen negozio-zifraren zenbateko garbiak horrela jarraitu zuen, %13 jaitsiz, eta %9,9z gutxitu ziren langile okupatuak. Aurreko urtearen aldean 8.487 lanpostu garbi galdu dira.

Beste zenbait alderdi aipagarri:

Faktoreen kostuari erantsitako balioa %8,0 jaitsi zen eta Pertsonal gastuak %8,3.

Ustiapen soberakin gordina %7,6 jaitsi zen, eta amortizazioak are gehiago; bi horiek %1,5 jaitsarazi zuten Ustiapen soberakin garbia.

Zerga aurreko emaitzak, berriz, %72,4 hazi dira eta Ekitaldiaren emaitza %59,7; arrazoia da beste diru-sarreraren eta ohi kanpoko gastuen arteko saldoak hobera egin duela; 2011n negatiboa bada ere, hobe da aurreko ekitaldiaren aldean.

2011n inbertsioa %41 jaitsi zen.

Eraikuntzako aldagai nagusiak. Euskal AE. Prezio korronteak (mila €)

	2010	2011	Δ %
Landunak	85.827	77.340	-9,9
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	5.279.630	4.854.621	-8,0
Ustiapeneko soberakin gordina	1.805.782	1.668.432	-7,6
Egindako inbertsioak	345.899	204.184	-41,0
Amortizazioetarako zuzkidurak	418.234	302.100	-27,8
Negozio zifraren zenbatekoa guztira	17.099.703	14.882.255	-13,0
Hornimenduak	10.254.339	8.383.668	-18,2
Kanpo-zerbitzuak	1.981.536	1.717.977	-13,3
Lagileria-gastuak	3.473.848	3.186.189	-8,3
Zergen aurreko emaitzak	477.814	823.799	72,4
Eragiketa jarraituetatik etorritako ekitaldi emaitza	389.986	622.652	59,7


Iturria: EUSTAT. Eraikuntzaren estatistika

Lurralde mailan oro har gertatzen dena gertatzen da, jaitsierak bai enpleguan, bai balio erantsian, Euskal AE osoan bezalatsu. Araban ditugu muturreko balioak, %-12,5 pertsonal okupatuan eta %-11,8 Faktoreen koste gordinari erantsitako balioan.

Eginiko ondasunaren azken erabilera-motaren arabera salmenten banaketaz, 2011. urtean eraikuntzaren negozio-zifren %77 Etxegintzatik dator eta gainerako %23 Obra zibiletik.

Eraikuntzaren %38 bizileku berriak dira eta %12 bizilekuen zaharberritzea. Obra zibila sektorearen %17 da.

Eginiko ondasunaren azken erabilera-motaren arabera salmenten banaketa. Euskal AE



Iturria: Eraikuntzaren estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
[Euskal AEko eraikuntza-estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)
[Euskal AEko eraikuntzaren estatistika -datu bankua](#)